

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

KULTURA ETA KIROL SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 9/2022 Foru dekretua, otsailaren 22koa. Kultura eta Kirol Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onestea

Foru Administrazioan administrazio antolaketa ezartzeko eskumena Arabako Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak du bere gain, halaxe xedatzen baitute Euskal Autonomia Erkidegoko estatutuak, Autonomia erkidego osoko erakundeen eta lurralde historikoetako foru erakundeen arteko harremanei buruzko Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak, eta Batzar Nagusiek onetsitako erakunde araudiak.

Ahalmen hori baliatuz, Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Araua onetsi zen. Horren babesean, diputatu nagusiak Arabako Foru Aldundiaren egituraren sailak eta horiei dagozkien lan arloak ezarri ditu Diputatu Nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren bidez (uztailaren 19ko 345/2019 Foru Dekretuaren bidez eta irailaren 30eko 306/2020 Foru Dekretuaren bidez aldatua, biak diputatu nagusiarenak).

Kultura eta Kirol Sailari honako eskumen hauek esleitzen zaizkio:

- Agiritegi eta liburutegiak.
- Museoak.
- Zaharberritzeak.
- Kultura Etxea.
- Hezkuntza sustapena eta kultura zabalkundea.
- Argitalpenak.
- Historia, arte eta arkitektura ondarea.
- Kirola.
- Gazteria.
- Ordenamendu juridikoan adierazitako gainontzekoak.

Aldundiaren antolamenduari, funtzionamenduari eta lege araubideari buruzko foru arauaren 38., 40., 70. eta 73. artikuluetan eta horiekin bat datozenetan ezartzen dira sailei oro har ematen zaizkien ahalmen eta eskuduntzak, eta aipatutako alorretan ere esparru horren barruan jardungo du administrazioak.

Kultura eta Kirol Sailaren ardurapeko eta eskumeneko esparru materiala finkatuta, foru dekretu honek haren egitura ezartzen du, horri buruz egindako txostenak kontuan hartuta, eta diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuan xedatutakoa betez.

Horregatik, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bileran gaia aztertu ondoren, hauxe,

XEDATZEN DUT
I. KAPITULUA
XEDAPEN KOMUNAK

1. artikulua. Jardun eremuak

Aldundiko sailak eta horien jardun arloak zehazten dituen diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera, Kultura eta Kirol Sailari dagozkio agiritegi eta liburutegi, museo, zaharberrietan, kultura etxearen, hezkuntza sustapen eta kultura zabalkundearen, argitalpenen, historia, arte eta arkitektura ondarearen, kirolaren, gazteriaren eta ordenamendu juridikoak adierazten dituen gainerako arloen inguruko jardun eremuak. Horrez gain, Gazteriaren Foru Erakundea erakunde autonomoa ere atxikitzen zaio.

Gainera, Kultura eta Kirol Sailak bere gain hartuko ditu bere jardun arloekin zerikusia duten gainerako beste eskumen guztiak, Foru Aldundiarenak izanik beste foru sail bati berriaz esleitzen ez zaizkionak.

2. artikulua. Egitura

Aurreko artikuluan aipatutako jardun eremuetako eginkizunak burutzeko, Kultura eta Kirol Saila honako unitate organiko hauetan egituratzen da:

1. Kultura Zuzendaritza. Honako hauek atxikitzen zaizkio:

- a) Artxiboko eta Dokumentuak Kudeatzeko Zerbitzua.
- b) Museo eta Arkeologia Zerbitzua
- c) Zaharberrikuntza Zerbitzua
- d) Kultura Etxeko Zerbitzua.
- e) Kultura Ekintza Zerbitzua.
- f) Kultura eta Kiroleko Idazkaritza Teknikoko Zerbitzua.
- g) Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua.

2. Kirol Zuzendaritza. Honako hau atxikitzen zaio:

- a) Kirol Zerbitzua.

3. artikulua. Kide anitzeko organo atxikiak

Hona hemen Kultura eta Kirol Sailari atxikita dauden kide anitzeko organoak, Aldundiaren Erakundearen Erregistroan agertzen den zenbakiarekin identifikatuta:

| ERAKUNDEAREN ZK. | IZENA |
|------------------|--|
| 20 | Santa Maria Katedrala Fundazioa. |
| 32 | Arabako Artium Fundazioa |
| 73 | Gazteriaren Foru Erakundea. |
| 231 | Arabako Eskola Kiroleko Lurralde Kontseilua. |
| 258 | KIROLARABA Fundazioa. |
| 287 | Añanako Gatz Harana Fundazioa. |
| 385 | Arabako Gazteen Partaidetzarako Lurralde Kontseilua. |

4. artikulua. Gazteriaren Foru Erakundea

Bat etorri Gazteriaren Foru Erakunde Autonomoa eratzen duen Foru Arauan xedatutakoarekin (22/1988 Foru Araua, ekainaren 20koa), erakunde horri dagozkio Araban gazteen prestakuntza eta sustapen osoarekin zerikusia duten mota guztietako jarduerak antolatzea, kudeatzea, sustatzea, ematea eta gauzatzea, lege finkatutako eskumen esparruaren barruan

Hauek dira erakundearen zuzendaritza organoak:

- Administrazio Kontseilua.
- Zuzendari kudeatzailea.

Organo horiek 22/1988 Foru Arauaren 5.etik 7.era bitarteko artikuluetan adierazitako eginkizunak beteko dituzte, Gazteriaren Foru Erakundea erakunde autonomoaren egitura eta funtzionamenduari buruzko Araudiaren arabera, zeina urriaren 27ko 73/2009 Foru Gobernu Kontseiluaren Foru Dekretu bidez onetsi baitzen, egun indarrean duen idazketaren edo Arabako Foru Aldundiak horretarako ezar dezakeen idazketaren arabera.

5. artikulua. Kultura eta Kirol Saileko titularraren eginkizun orokorrak

Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuari dagokio Arabako Foru Aldundiaren antolaketari, funtzionamenduari eta lege araubideari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 40. artikuluan ezarritako eskumen orokorrez eta foru dekretu honetako 1. artikuluan ezarritako eskumen bereziaz baliatzea, bai eta dagozkion eginkizunen eta jardun eremuan araudiak sailari esleitzen dizkion beste guztiak ere.

Foru diputatuak sailari atxikita dauden foru sektore publikoko erakundeak zuzenduko ditu, dekretu honetan eta gai horretan aplikagarri den legerian ezarritakoaren arabera.

6. artikulua. Saileko zuzendaritzen eginkizun orokorrak

Zuzendaritzen eginkizun orokorrak dira, sailaren zuzendaritza organoak diren aldetik, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege araubidearen abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 75. artikuluan eta horrekin bat datozenetan ezarritakoak, bai eta sailari dagozkion eginkizunen eta jardun eremuen esparruan araudiak esleitzen dizkienak ere, eta bereziki, honako hauek:

- a) Antolamendu araudien arabera zuzendarien egiteko diren zerbitzuak zuzendu eta kudeatzea, eta beren ardurapeko gaiak konpontzea.
- b) Zuzendaritzaren eskumeneko eta zuzendaritzak izapidetzekoak diren gaietan egoki irizitakoa sailaren titularrari proposatzea.
- c) Saileko titularrari laguntza teknikoa eta administratiboa ematea eskatzen zaizkien gai guztietan.
- d) Zuzendarien menpeko administrazio unitateen jarduera planen proiektuak eta beharren programak egitea.
- e) Zuzendaritzaren bulegoak eta unitateak zaintzea, kontrolatzea eta ikuskatzea.
- f) Zuzendarien menpe dauden administrazio unitateen funtzionamendu araubidea proposatzea, eta unitate horiei administrazio jarduerarako zirkularrak eta jarraibideak ematea.
- g) Zuzendarien kargura dauden zerbitzuen funtzionamendu, gastu eta errendimenduari buruzko txostena sailaren titularrari urtero bidaltzea.
- h) Diputatu nagusiak edo saileko diputatuak eskuordetzen dizkien eginkizunak betetzea.
- i) Aldundiaren ordezkari izendatzen direnean, administrazio kontseiluetan edo beste gobernu organo batzuetan parte hartzea.
- j) Foru aldundiaren erabakietan eta arautegi organikoetan beren gain uzten dituzten bestelako eginkizunak gauzatzea.

7. artikulua. Gazteriaren Foru Erakundearen zuzendaritzaren eginkizunak

Kirol zuzendariari dagokio, Gazteriaren Foru Erakundearen kudeatzailetzaren arduraduna den aldetik, foru erakunde autonomo hori sortzeko ekainaren 20ko 22/1988 Foru Arauan eta Foru Gobernu Kontseiluaren urriaren 27ko 73/2009 Foru Dekretuan edo horien ordezkari arauetan adierazitako eginkizunak betetzea.

Gainera, eginkizun zehatz hauek izango ditu:

- a) Gazteei zuzendutako ekintzen eta ekimenen garapena gainbegiratzea, eta proiektu berritzaileak bultzatu eta babestea.
- b) Gazteei zuzendutako erakundeak babestea eta sustatzea.
- c) Gazteriaren, enpleguaren, etxebizitzaren eta/edo turismoaren arloan sailen arteko lankidetzak koordinatzea eta sustatzea.
- d) Gazteen artean emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna defendatzen dela zaintzea.
- e) Gazteentzako hizkuntza politikan eskumena duten erakunde eta zerbitzuekin lankidetzan aritzea.
- f) Negoziazio kolektiboa eta sindikatuekiko eta enpresa batzordearekiko harremanak sustatzea.
- g) Gazteriaren arloan aplikatzeko den araudia betetzen dela zaintzea.
- h) Arabako Foru Aldundiaren jabetzako aterpetxeen mantentzea eta kontserbazioa bermatzea.
- i) Arabako Gazteen Partaidetzarako Lurralde Kontseiluaren parte-hartzea sustatzea.
- j) Beste administrazio batzuekin aliantzak sortzea gazteentzako politiken arloan.

8. artikulua. Administrazio unitateetako buruen eginkizun orokorrak

Hauek dira administrazio unitateetako buruen eginkizun orokorrak:

- a) Zuzendarien ardurapeko administrazio unitateei dagozkien gaiak zuzentzea eta kudeatzea eta beren eskumeneko arloetan ebazpen proposamenak prestatzea.
- b) Zuzendariari eta, hala badagokio, foru diputatuari, administrazio unitatearen berezko eskumenen esparruan egoki irizitako xedapenak eta ebazpenak proposatzea.
- c) Zuzendariari eta foru diputatuari aholkularitza teknikoa ematea.
- d) Administrazio unitatearen barne jarduerako araubidea ezartzea.
- e) Administrazio unitateak gauzatu behar dituen programen aurrekontu proposamena egitea eta kudeatzea eta behar bezala aplikatzen direla kontrolatzea, bai eta haien jarraipenaz arduratzea ere.
- f) Azterlanak eta txostenak egitea eta zuzendariari aurkeztea, azter ditzan.
- g) Administrazio unitatearen eginkizunak betetz, berezkoak dituen administrazio espedienteak ebaztea, izapidetzea eta proposatzea.
- h) Ahalik eta laguntzarik handiena ematea Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasunaren, herritarren parte hartzearen eta gobernu onaren otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauari loturiko eginkizunak bere gain hartzen dituen saileko administrazio unitateari.
- i) Eta, nagusiek administrazio unitatearen eskumenen barruan agintzen dioten beste edozein lan egitea.

9. artikulua. Kontratazio mahaia

Kultura eta Kirol Sailean kontratazio kontratazio mahai iraunkor bat eratuko da, sail honek bere eskumenen esparruan prozedura irekiaren edo mugatuaren bidez egiten dituen kontratu guztietarako: Kontratazio mahai hori honako hauek osatuko dute:

- Mahaiburua: gaiaren arabera eskumena duen zuzendaritzako titularrak edo hark eskuordetutako pertsona.

- Idazkaria: Kultura eta Kirol Saileko Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuko teknikari bat, edo hark eskuordetzen duena.
- Mahaikidea: kontratazioa proposatzen duen zerbitzua ordezkatzeko duten funtzionario bat.
- Bi mahaikide, kontratazio organoaren lege aholkularitza eta kontuhartzailera esleitura dituzten administrazio atalek izendatuak.

II. KAPITULUA

KULTURA ZUZENDARITZAREN EGINKIZUNAK

10. artikulua. Kultura Zuzendaritza

Kultura Zuzendaritzari dagokio:

– Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamenduari eta Lege Araubideari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 75. artikuluan eta horrekin bat datozenetan zuzendariei esleitzen zaizkien eta foru dekretu honen 6. artikuluan aipatzen diren eskumen orokorrak baliatzea, baita aplikatzekoa den araudiak esleitzen dizkien beste batzuk ere.

- Sailaren titularrak eskuordetuta, zehatzeko ahala erabiltzea bere eskumeneko gaietan.
- Kulturaren arloko politika kudeatzea eta planifikatzea, esleitutako berariazko eskumen hauekin bat etorritik:

- Artxiboko eta Dokumentuak Kudeatzeko Zerbitzua.
- Museo eta Arkeologia Zerbitzua
- Zaharberrikuntza Zerbitzua
- Kultura Etxeko Zerbitzua.
- Kultura Ekintza Zerbitzua.
- Kultura eta Kiroleko Idazkaritza Teknikoko Zerbitzua.
- Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua.

– Zuzendaritzari atxikitako unitate organikoak zuzentzea.

11. artikulua. Artxiboko eta Dokumentuak Kudeatzeko Zerbitzua

Artxiboko eta Dokumentuak Kudeatzeko Zerbitzuari eginkizun hauek dagozkie:

a) Arabako Foru Aldundiaren dokumentuak eta artxiboak, fisikoak zein elektronikoak, osorik kudeatzeko sistema zuzentzea eta mantentzea, eta funtzionamendurako beharrezkoak diren neurri funtzionalak, operatiboak eta arauak bultzatzea.

b) Arabako Foru Aldundian artxibo elektroniko bakarra bultzatzea eta ezartzea.

c) Bere zainzapeko ondare dokumental eta bibliografikoa deskribatzea, eta hura erabiltzea ahalbidetzen duten gidak, inbentarioak eta katalogoak egitea eta argitaratzea, bereziki Internet bidez.

d) Bere zainzapeko ondare dokumental eta bibliografikoa kontserbatzea, prebentziozko kontserbazio neurriak planifikatuz eta gauzatuz.

e) Eskuratzeko politika proposatzea eta bere zainzapeko ondare dokumental eta bibliografikoa aberastea, dohaintzen eta titulartasun publiko zein pribatuko funtsen gordailuen bidez.

f) Arabako historiako dokumentu iturriei buruzko ikerketa akademikoa sustatzea eta aholkularitza ematea

g) Arabako Probintzia Artxibo Historikoaren instalazioak eta dokumentu funtsak kudeatzea, Estatuko Administrazio Orokorrarekin sinatutako hitzarmenek xedatzen dutenaren arabera.

h) Zerbitzuak emandako jarduera publikoa zabaltzea, jarduera didaktikoen eta prestakuntza jardueren bidez.

12. artikulua. Museo eta Arkeologia Zerbitzua

Museo eta Arkeologia Zerbitzuak eginkizun hauek dauzka:

- a) Foru titulartasuneko museoetan dauden ondare funtsak artatzea, mantentzea eta zaintzea.
- b) Museo bakoitzean dauden bildumak handitzeko eta sendotzeko eskuratze politika proposatzea
- c) Museo funtsekin lotutako katalogazioa, dokumentazioa eta ikerketa sustatzea.
- d) Museo funtsak eta haiekin loturako ezagutza zabaltzea, erakusketak, argitalpenak eta abar eginez. Horretarako, eskuragarri jarriko dira gidak, inbentarioak eta katalogoak, euskarri digitalak lehenetsita eta haiek informazio trukearen eta kultura ezagutzaren arloko egitura eta sare mota guztietan txertatzea ahalbidetuta.
- e) Jarduerak eta programa didaktikoak garatzea eta sustatzea.
- f) Arabako Lurralde Historikoko arkeologia eta paleontologia ondarea mantentzea eta kontrolatzea.
- g) Arkeologia eta paleontologia arloko esku-hartzeak egitea, duten izaeragatik edo Euskal Kultura Ondareari buruzko Legea aplikatzeagatik edo foru aldundiaren berezko jarduketan ondorio izateagatik aldundiak egin beharrekoak direnean.
- h) Hirigune historikoetan zein hiriguneetatik kanpo, arkeologia guneeetan eragina izan dezaketen era guztietako jarduketan edo obra proiektuen txostenak egitea.
- i) Kultura eta Kirol Sailak kanpoko ikertzaileei kontratatutako zerbitzu historiko, artistiko, arkeologiko edo paleontologikoak gainbegiratzea
- j) Nahitaez egin behar diren esku-hartze arkeologiko edo paleontologikoak finantzatzen laguntzarren titular pribatuei ematen zaizkien laguntzak kudeatzea, Euskal Kultura Ondarearen 6/2019 Legearen 67. artikulua arabera.
- k) Kultura ondasun higigarriak edo higiezinak kategoria berezi edo ertainez babesteko, proposamena egitea Eusko Jaurlearitzak espedientei hasiera eman diezaiela eskatzeko.
- l) Txostenak egitea eta aholkuak ematea Arabako Lurralde Historikoko ondare higigarriari buruz. Bereziki, ikertzaileek eta herritarrek foru titulartasuneko museoetako funtsei buruz egiten dituzten kontsultei erantzutea, eta beste titulartasun bateko ondasun higigarriari buruzko txostenak egitea

13. artikulua. Zaharberrikuntza Zerbitzua

Zaharberrikuntza Zerbitzuari eginkizun hauek dagozkie:

- a) Arabako Lurralde Historikoko ondare higigarriaren zaharberritze politika proposatzea.
- b) Jakitea zein den Arabako Lurralde Historikoko kultura ondasun higigarrien kontserbazio eta erabilera egoera eta hori buruzko txostena egitea.
- c) Arabako kultura ondasun higiezinetan esku hartzeko proposamenak egitea.
- d) Arabako Foru Aldundiaren jabetzako ondare higigarriari buruzko proposamenak egitea eta hura zaharberritzea.
- e) Sustatzea Arabako Lurralde Historikoko kultura ondarea kontserbatzea eta zaharberritzea.
- f) Kultura eta Kirol Sailak Arabako ondare higigarria zaharberritzeko finkatzen dituen jarraibideak betetzea.
- g) Arabako Foru Aldundiak kultura ondare higigarria zaharberritzeko egiten dituen proiektuei buruzko txostenak egitea eta proiektuak gainbegiratzea.

h) Erakunde publiko eta pribatuei aholkuak eta informazioa ematea Arabako Lurralde Historikoko ondare higigarriaren kontserbazio eta zaharberrikuntzari buruz.

i) Kotsularako eta aholku emateko txostenak egitea Arabako Lurralde Historikoko kultura ondarea zaharberritzeari buruz.

j) Arabako kultura ondare higigarria zaharberritzeko ikerketa, prestakuntza eta zabalkundea sustatzea.

14. artikulua. Kultura Etxeko Zerbitzua

Kultura Etxeko Zerbitzuari eginkizun hauek dagozkie:

a) Ignacio Aldecoa Kultura Etxea eta barruan dagoen liburutegi publikoa zuzendu eta kudeatzea

b) Kultur Etxearen erabiltzaile mota desberdinei zuzendutako kultura eta hezkuntza jarduerak diseinatu, koordinatu eta gauzatzea.

c) Material bibliografikoen, entzunezkoen eta ikus-entzunezkoen bilduma orekatua biltzea, antolatzea eta jendaurrean jartzea, eta funts horien erabilera sustatzea eta bultzatzea.

d) Herritar guztiei baldintza berdinetan eskaintzea kontsulta eta irakurketa zerbitzuak aretoan, dokumentuen mailegu publikoa, irakurzaletasunaren sustapena eta informazio baliabideetarako irisgarritasuna.

e) Arabako Foru Aldundiko beste zerbitzu batzuekin koordinatzea haien liburutegiak katalogo kolektibo, automatizatu eta erabilerraz batean txertatzeko.

f) Euskadiko Irakurketa Sare Publikoarekin lankidetzan aritzea, bereziki Kultur Etxearen katalogoa sare horretan txertatuz eta liburutegien arteko maileguaren bidez.

g) Estatuko liburutegi publikoen sarearekin lankidetzan aritzea.

h) Ondare bibliografikoari eta hemerografikoari buruzko txosten teknikoak egitea.

i) Arabako Foru Aldundiak editatutako argitalpenen zabalkundea sustatzea, liburutegi publikoetan banatuz.

j) Arabako Foru Aldundiaren argitalpenak eta argitalpen katalogoa kudeatzea, bereziki liburuaren argitalpenaren koordinazio teknikoaren, banaketa fisikoaren eta zabalkundearen bidez.

15. artikulua. Kultura Ekintza Zerbitzua

Kultura Ekintza Zerbitzuak, zeinaren helburu nagusia baita kultura jarduera sustatzea eta zabaltzea, eginkizun hauek ditu:

a) Bultzatzea, indartzea eta sustatzea lurraldearentzat interesgarriak diren pertsonen eta kultura erakundeen arte sorkuntza, kultura zabalkundea eta kultura jarduera.

b) Kulturaren Plan Estrategikoaren lanketaren prozesua diseinatzea eta koordinatzea.

c) Kulturaren arloko beharrak aztertzea eta neurri egokiak proposatzea, kultura arteak eta jarduerak bultzatu, indartu eta garatze aldera.

d) Beste erakunde batzuek erabiltzen dituzten kultura politikako eta kudeaketako neurriak aztertzea eta konparatzea.

e) Programatutako kultura ekintzak ezartzea eta ebaluatzea.

f) Kultura ekintza eta zabalkundea sustatzeko deialdiak eta laguntzak programatzea eta ebaluatzea.

g) Udalerriei eta kultura erakundeei aholkuak ematea kultura programazioari, kultura azpiegiturei eta kultura programei buruz.

h) Arabako sortzaileak eta artistak zeintzuk diren jakiteko eta haiek balioesteko sustapena egitea.

i) Erakunde publiko eta pribatuekin akordioak proposatzea, kultura sustatze eta zabaltze aldera.

j) Erakunde publiko eta pribatuekin lankidetzan aritzea kulturaren arloan, bai estatuan, bai nazioartean.

k) Arabako udalerrietan kultura garapena sustatzen laguntzea.

l) Arte arloko jarduerak bultzatzea eta, besteak beste, arte eszenikoen eta musikaren ikerketa eta hobekuntza sustatzea.

m) Kultura elkarrekin lankidetzan aritzea eta erakunde arteko ekimenetan laguntzea.

n) Herriko jaiak, efemerideak, ekitaldiak eta abar direla-eta, kultura programak gauzatzea.

o) Indarrean diren xedapenen bidez esleitzen zaizkion beste guztiak, bai eta helburuak behar bezala betetzeko agintzen zaizkionak ere.

16. artikulua. Kultura eta Kiroleko Idazkaritza Teknikoko Zerbitzua

Kultura eta Kiroleko Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuari eginkizun hauek dagozkie:

a) Sailarekin lankidetzan aritzea aurrekontuaren aurreproiektua egiteko, dagokion aurrekontu jarraipena egitea, beharrezkoak diren aurrekontu aldaketak kudeatzea eta zerbitzuei aholkularitza ematea aurrekontua gauzatzearen arloan.

b) Politika eta programen zehaztapena koordinatzea, haiek garatzeko beharrezkoak diren urte anitzeko edo urteko plangintza eta plangintza operatiboko tresnetan, eta, horrez gain, haien jarraipena eta ebaluazioa bultzatzea, eraginkortasun, efizientzia, gardentasun eta osotasun irizpideak erabiliz.

c) Saileko zerbitzuen jarduerak sortutako kontratu, dirulaguntza eta hitzarmenen espedienteen izapidetze ekonomiko-administratiboa, jarraipena eta kontrola kudeatzea, irizpide sozialak, ingurumenekoak eta berrikuntzakoak txertatzea sustatuz.

d) Urteko Araugintza Planaren prestaketa koordinatzea, sailak bultzatutako xedapen orokorrrak izapidetzea, jarduteko lege esparrua ebaluatzea eta hura hobetzeko proposamenak egitea.

e) Sailaren unitateei lege aholkua ematea.

f) Hitzarmenak, kontratuak, estatutuak eta antzekoak egitea.

g) Sailari dagozkion gaien arloko zehapen espedienteak bideratzea.

h) Ebazpenen eta administrazio egintzen aurka jarritako administrazio errekurtsioak izapidetzea.

i) Sailari atxikitako fundazioen idazkaritza eginkizunean jardutea.

j) Saileko zerbitzuei aholku ematea eta haiekin lankidetzan aritzea, kalitatezko sistemak eta kudeaketaren hobekuntza etengabea ezartzeko eta izapideen berrikuntza eta sinplifikazioa bultzatzeko.

k) Politika publikoen ebaluazioa, gardentasuna eta herritarren parte hartzea kudeatzea, bere sailaren eskumenera gaitan, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasun, herritarren parte hartze eta gobernu onaren otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak xedatutakoaren arabera.

l) Zerbitzuei aholku ematea eta haiek koordinatzea, datu pertsonalak babesteari buruzko araudia betetzeari dagokionez.

m) Zerbitzuei aholku ematea beren jardueretan genero ikuspegia zeharkako bihurtzeko, Arabako Foru Aldundiaren Berdintasunerako Foru Planaren barruan sailari dagozkion ekintzak abian jartzeko lanak koordinatzea, eta berdintasunaren arloan sailen arteko koordinazio egituretan parte hartzea.

17. artikulua. Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua

Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuari eginkizun hauek dagozkie:

a) Arabako kultura ondasun higiezinaren kontserbazio egoera eta erabilera zein den jakitea eta horren gaineko txostenak egitea.

b) Arabako kultura ondasun higiezinetan esku hartzeko proposamenak egitea.

c) Arabako Lurralde Historikoko kultura ondare higiezinaren kontserbazioa eta zaharberritzea sustatzea.

d) Foru Aldundiak kultura ondare higiezina zaharberritzeko edo, hala badagokio, birgaitzeko egiten dituen proiektu eta obrei buruzko txostenak egitea eta gainbegiratzea.

e) Kultura ondare higiezinako proiektuak eta obrak zuzentzeko jardunak idaztea, zuzentzea eta, hala badagokio, gainbegiratzea, Kultura eta Kirol Sailak kontratatutako zerbitzuak eta obrak jaso arte.

f) Foru Aldundiak kultura ondareari buruzko arauditik eta araudi horren erregelamenduzko garapenetik eratorritako prozeduretan eman behar dituen nahitaezko txostenak egitea, kultura ondasun higiezonei eragiten dietenak.

g) Euskal Kultura Ondarearen Legearen arabera foru aldundiaren alde aurreko baimena behar duten proiektu publiko eta pribatuei buruzko txostenak egitea eta haiek gainbegiratzea.

h) Monumentu multzoak dituzten udalek birgaitze plan berezien edo antzekoen babesean egiten dituzten administrazio egintzak gainbegiratzea

i) Kantsultarako eta aholku emateko txostenak egitea Arabako Lurralde Historikoko kultura ondasun higiezonei buruz.

j) Hirigintza planak onetsi aurreko txostenak eta ingurumen eraginaren ondorioz sortzen diren eskakizunei dagozkienak egitea.

k) Arabako historia eta arkitektura ondareari buruzko ikerketa, prestakuntza eta zabalkundea sustatzea.

III. KAPITULUA

KIROL ZUZENDARITZA

18. artikulua. Kirol Zuzendaritza

Kirol Zuzendaritzari dagokio Arabako Foru Alduandiaren Antolaketari, Funtzionamenduari eta Lege Araubideari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 75. artikuluan eta harekin bat datozenetan zuzendariei esleitzen zaizkien eta foru dekretu honen 6. artikuluan aipatzen diren eskumen orokorrak baliatzea, baita aplikatzekoa den araudiak esleitzen dizkien beste batzuk ere Bereziki, eginkuzun hauek izango ditu:

a) Araban kirola bultzatzeko ekintzak eta ekimenak proposatzea eta gainbegiratzea.

b) Kirol erakundeekin lankidetzak hitzarmenak egitea proposatu eta sustatzea, Araban kirol jarduerak behar bezala aurrera egitea indartzeko.

c) Teknikarien, entrenatzaileen eta monitoreen prestakuntza sustatzea, Arabako oinarriko kirolean eta kirol federatuen kalitatea bermatzeko.

d) Eskola kirolaren araudian ezarritako jarraibideak betetzen direla zaintzea.

e) Arabako Foru Aldundiak eskuordetutako eginkizun publikoak dituzten kirol erakundeen funtzionamendua behar bezalakoa dela zaintzea.

f) Arabako kirola zabaltzeak eskatzen dituen komunikazio ekintzak programatu, diseinatu, koordinatu, zentralizatu eta baimentzea.

g) Araban kirol ekitaldiak bultzatzea eta kirol erakundeekin babesletza kontratuak sustatzea, Araba erreferente izan dadin kirolean.

h) Arabako kirolean emakumeen eta gizonen berdintasuna bermatzea.

i) Kirolaren bidez, euskararen erabilera sustatzea Araban.

j) Sailaren titularrak eskuordetuta, zehatzeko ahala erabiltzea bere eskumeneko gaietan.

19. artikulua. Kirol Zerbitzua

Kirol Zerbitzuari eginkizun hauek dagozkie:

a) Eskola Kiroleko programak bultzatzea, ikastetxeekin, klubekin, kirol klubekin, Arabako kirol federazioekin eta gainerako kirol agente guztiekin lankidetzan.

b) Bertako kirolak sustatzea.

c) Aisialdiko kiroleko programak bultzatzea, lankidetzan arituz, oro har, irabazteko xederik gabeko talde eta elkarteekin, eta, bereziki, kirol arloko talde eta elkarteekin.

d) Kirol federatuko programak gara daitezen sustatzea Arabako kirol federazioen bitartez.

e) Kirol federatua sustatzea, kirol klub, talde eta elkarteekin lankidetzan, arreta berezia jarritz arlo hauetan: emakumeen, kadeteen eta gazteen kirola, desgaitasuna duten pertsonentzako kirolean jarduten duten kolektiboak eta haien teknikarien prestakuntza eta eguneratzea.

f) Araban kirola sustatu eta garatzea, errendimendu handiko kirol ez-profesionalari lehen-tasuna emanez Kirolaraba Fundazioaren bidez.

g) Eskolako eta aisialdiko kirolari buruzko programak gara daitezen sustatzea Arabako toki erakundeen bitartez.

h) Ikuskaritza eginkizunak betetzea eskola kirolaren arloan, indarrean dagoen araudiaren ez-betetzeak galarazi edo zuzentzen saiatzeko helburuaz, eta nolahi ere kirolean balioak sustatzeko asmoz, horren barruan egonik indarreko arauak eta erabakiak betetzea.

i) Kirol arloan sailari esleitutako eskumenak gauzatzeko beharrezkoak diren ekintzak garatzea, indarrean dagoen legeriaren arabera.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa. Zuzendaritzetako titularren karguak hutsik daudenean, titularrak ez daudenean, gaixorik daudenean edo aldi baterako ezinduta daudenean, edo abstentzio edo errekusazio kasuetan, ordezkatzeko araubidea Arabako Foru Aldundiko sailtako zuzendaritzetako titularrak ordezkatzeko araubidea onesten duen irailaren 24ko 43/2019 Foru Dekretuan edo hura ordezten duen araudian xedatutakoari egokituko zaio.

Bigarrena. Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 18.3 artikuluan ezarritakoa betetzeko, xedapen honetan ezartzen den egitura organikoak lanpostuen zerrendan eragiten dituen aldaketak funtzio publikoaren alorrean eskuduna den erakundeak jasoko ditu, lanpostuen zerrendek unean une duten egoerari buruz aldizka eguneratzen den informazioa daukan agiri batean.

XEDAPEN INDARGABETZAILEAK

Lehenengoa. Foru dekretu hau indarrean sartzen denean, indarrrik gabe geratuko dira arau hauek guztiak: Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 9ko 16/2016 Foru Dekretua, zeinaren bidez onesten baita Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren egitura organikoa eta funtzionala, eta

Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 9ko 47/2017 Foru Dekretua, otsailaren 9ko 9/2019 Foru Dekretua eta abuztuaren 2ko 41/2019 Foru Dekretua, 16/2016 Foru Dekretua aldatzen dutenak, eta, bereziki, foru dekretu honetan ezarritakoaren aurka dauden xedapen eta ebazpen guztiak.

Bigarrena. Foru dekretu hau indarrean sartzeko denean, indarririk gabe geratuko dira Foru Gobernu Kontseiluaren Foru Dekretu hauek guztiak: 11/2004, otsailaren 24koa, 12/2004, otsailaren 24koa, 80/2004, abenduaren 30ekoa, 65/2005, urriaren 18koa eta 49/2009, ekainaren 16koa.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Kultura eta Kirol Sailaren organigrama onetsi da, eta foru dekretu honen eranskin doa.

Bigarrena. Dekretu hau ALHAOn argitaratu ondorengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko otsailaren 22a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Kultura eta Kirol diputatua

ANA M^a DEL VAL SANCHO

Kultura zuzendaria

M^a INMACULADA SÁNCHEZ ARBE

Kirol zuzendaria

ANA ROSA LÓPEZ DE URALDE GÓMEZ

